


MENDIALDEA

KANTUZ

2022-2023



AURKIBIDEA

1. AGATE DEUNA	2
2. GORA EUSKARA	3
3. ITSASONTZI BATEN	4
4. EUSKARAREN TXANTXANGORRIA	5
5. OLES OLES	6

AGATE DEUNA



Santa Ageda abeztia

Zorion, etxe hontako deno!
Oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz.
Baina eztarriz sano gabiltza,
ta kanta nahi degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratu deguna.
Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna.
Haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.

GORA EUSKARA

ZEIN ZORAGARRIA DEN ZU
EUSKARAZ ENTZUTEA EZ
DAKIENARI MUNDU MAGIKO HAU
HURBILDUKO DIOGU TA ZEIN
POLITAK DIREN LENGOAIA GUZTIAK
FRANTSESA, GAZTELERA, DENAK
BAINA EUSKARA KUTTUNENA.

EZ GARA INOIZ ASPERTUKO GORA,
GORA, GORA EUSKARA GORRENEK
ERE ENTZUNGO DUTEN MODUAN
GORA EUSKARA! (BERRIZ)

ZEIN ZORAGARRIA DEN ZU
EUSKARAZ ENTZUTEA EZ
DAKIENARI MUNDU MAGIKO HAU
HURBILDUKO DIOGU TA ZEIN GAUZA
EDERRA EUSKARAZ JOLASTEA
PIRATEN ALTXORRIK PREZIATUENA,
DA GURE EUSKARA

EZ GARA INOIZ ASPERTUKO GORA,
GORA, GORA EUSKARA GORRENEK
ERE ENTZUNGO DUTEN MODUAN
GORA EUSKARA! (BERRIZ)

ASTONAUTAK UNE_ORO LOKARTZEN
DUEN IZARRA MAINDIREZ
ESTALTZEN DUENA TXAPELDUNEN
OIHUA, HIZTUNAREN BIHOTZA,
GARAIPENAREN TANTOA EUSKARA!

EZ GARA INOIZ ASPERTUKO...

ZEIN ZORAGARRIA DEN ZU
EUSKARAZ ENTZUTEA EZ
DAKIENARI MUNDU MAGIKO HAU
HURBILDUKO DIOGU TA ZEIN
POLITAK DIREN LENGOAIA GUZTIAK
FRANTSESA, GAZTELERA, DENAK
BAINA EUSKARA KUTTUNENA...

euskaraz
bizi
nahi dut

ITSASONTZI BATEN

ITSASONTZI BATEN

EUSKAL HERRITIK KANPORA

NARAMATE ETA EZ DAKIT NORA.

ITSASONTZI BATEN

EUSKAL HERRITIK KANPORA

NARAMATE ETA EZ DAKIT NORA.

AGUR NERE AMA

LAZTAN GOXOARI

AGUR NERE MAITE POLITARI

EZ EGIN NEGAR

ETORRIKO NAIZ

EGUNEN BATEN

POZEZ KANTARI

EZ EGIN NEGAR

ETORRIKO NAIZ

EGUNEN BATEN

POZEZ KANTARI

ITSASONTZI BATEN

EUSKAL HERRITIK KANPORA

NARAMATE ETA EZ DAKIT NORA.

ITSASONTZI BATEN

EUSKAL HERRITIK KANPORA

NARAMATE ETA EZ DAKIT NORA.

AGUR SENIDEAK

AGUR LAGUNARI

AGUR EUSKAL HERRI OSOARI.

EZ EGIN NEGAR

ETORRIKO NAIZ

EGUNEN BATEN

POZEZ KANTARI

EZ EGIN NEGAR

ETORRIKO NAIZ

EGUNEN BATEN

POZEZ KANTARI

ITSASONTZI BATEN

EUSKAL HERRITIK KANPORA

NARAMATE ETA EZ DAKIT NORA



EUSKARAREN TXANTXANGORRIA

SORTALDEKO ARGI BERRIARI

ARI ZAIO ASPALDI

ARRATSEKO AZKEN IZPIARI

EGUN ETA GIZALDI.

BULAR GORRI, HEGAKADA ARIN

LUR HAUETAN DA EMARI.

ERREKA ETA IBAI ZABALAREN,

ITSASOAREN EGARRI.

LAU HAIZETARA HEGAN

BERA DABIL AIREAN

AHOTAN, BELARRITAN

SU EPELEAN

KALEAREN BIZIA

HERRI HONEN IRRIA

EUSKARAREN TXANTXANGORRIA

HAIZEAREN MAGAL LEUNEAN

HEDATU DA OIHUA

BIHOTZAREN TAUPADETAN, HITZAK

SORTU DU DOINUA.

OLATUEK BEREN SOLASEAN

AUKERATUTAKO HARRIA

DENBORAN ZEHAR DUTE JOLASEAN

ETEN EZ DADIN HARÍA.

LAU HAIZETARA HEGAN

BERA DABIL AIREAN

AHOTAN, BELARRITAN

SU EPELEAN

KALEAREN BIZIA

HERRI HONEN IRRIA

EUSKARAREN TXANTXANGORRI



OLES OLES

OLES OLES, LURRA ESNA ZAITEZ! (x4)

AHARRAUSI EGIN DU BASOAK,
ZUHAITZEK ZABALDU BESOAK,
KANTUAN HASI DIRA BIRIGARROAK ETA ZOZOAK. (x2)

OLES OLES, LURRA ESNA ZAITEZ! (x4)

AHARRAUSI EGIN DU BASOAK,
ZUHAITZEK ZABALDU BESOAK,
DANTZARI HASI DIRA AZERIAK ETA OTSOAK.
(x2)



OLES OLES, LURRA ESNA ZAITEZ! (x4)

AHARRAUSI EGIN DU BASOAK,
ZUHAITZEK ZABALDU BESOAK,
BERRIRO ENTZUN DEZAN TAUPADAKA MUNDU OSOAN. (x2)

OLES OLES, LURRA ESNA ZAITEZ! (x4)

KOLORE KOLORE

KOLORE, KOLORE TA GUSTU GUZIAK
DENONTZAT, DENONTZAT EZ DIRA BERDINAK. (X2)

URDINA...ZUK NAHI DUZU URDINA
NIK MAITEAGO HORIA
BIEN ARTEAN FERDEA SORTUKO DA
EZKERRA, ESKUINA, GIBEL EDO AINTZINA
BAKOITZAK BERE BIDEA
BERARENTZAT ONENA!



KOLORE, KOLORE TA GUSTU GUZIAK
DENONTZAT, DENONTZAT EZ DIRA BERDINAK. (X2)

AMAIA, JONEKIN MAITEMINDUA
ZORITXARREZ ARANTXA DA
JONEN AMODIOA, ZE LASTIMA!
ALBOAN BETI DAUZKAT
BAI OLGA TA BAI OLATZ
ETA NIK MAITATZEN DUT AMAIA
MUNDUA GAIZKI EGINA DA!

KOLORE, KOLORE TA GUSTU GUZIAK
DENONTZAT, DENONTZAT EZ DIRA BERDINAK.(X2)

ESKU BAT. SORIONEKUAK

Nahi nuke esku bat...

Nahi nuke esku bat...

Nahi nuke esku bat

zorionekoa,

libre egin nazan

askatu gabe.

Amore eman ondoren

erruak erre baino lehen,

Esku bat...bide-seinale

ta bat-batean haizea alde.

Hatz bakoitzean milaka hitz ditu

ziur zahartzen da ta zimur-berritu;

bizipoz-marra amaigabekoa...

Ni, bai, zorionekoa!

Nahi nuke esku bat

zorionekoa,

denen ispilu

nire irudi.

Nire algoritmoekin

eta antonimoekin

esku bat...mundura zubi.

Nondik abia, nora itzuli.

Hatz bakoitzean milaka hitz ditu...

Nahi nuke esku bat

zorionekoa...

Nahi nuke esku bat

zorionekoa...

Nahi nuke...

Nahi nuke...

Ez al da arraroa

zorionik gabe Nafarroa?

Hatz bakoitzean milaka hitz ditu...

Nahi nuke esku bat, zorionekoa...

Zorionekoa!